

MUNGIA. Herritarrei eta Udaleko beharginei zuzenduta dago

Martxan dago euskerearen aldeko kanpaina barria

Euskarriak erabiliko dabez mungiarren artean erabilerea zabaltzeko



MUNGIKO UDALA

Zerbitzuetako hartzaileei begira euskarriak eukiko dauen itxurea.

Veronica Muñoz |

Mungia herri euskalduna da, baina euskerearen erabilerea askotan ez da gura bezain zabala. Hori dala eta, egunokaz kanpaina barria ipini dabe martxan Euskerearen Normalizazinorako Zerbitzukoek, mungiarren artean gure hizkuntzaren erabilerea bultzatzeko. Egitasmoa euskaldunei zein erdaldunei zuzenduta dago, «euskerea bizirik

egoteko euskeraz berba egitea preminazkoa dala erakutsi guran», antolatzaileek dinoenez.

Hiru zatitan egingo dabe euskerearen aldeko kanpaina. Lehenengo eta behin, Astiunerako Udal Erakundean (kultura, kirol eta aisialdirako zerbitzuetan) ipini dabe martxan; bigarrenik, udaletxera eroango da; eta, azkenik, herriko lokal guztietara zabalduko dabe kanpainan parte hartzeko eskaintzea (merka-

tari, ostalari, alkarte eta zerbitzuen artean).

Euskaldunei zein erdaldunei zuzenduta dago

Euskeraz badakizu? Guk bai leloa aukeratu dabe euskera dakienei kanpainearen mezua heldu arazoteko, eta *Animate* leloa, euskerea ez dakienarentzat, hizkuntzarekiko jarrera ona euki daian. Asteon hasi dira kanpaineagaz, Astiunen. Izan be, euskerearen dinamizazinarako zerbitzutik azaldu dabe nez, Astiunek Mungian mogimendu gehien sortzen dauen erakundea da. Kiroldegia, Liburutegia, Torrebillela Kultur Etxea, Musika Eskola eta Udal Euskaltegiaren azpiegitura administratiboa da. Informazinarako euskarri erakargarriak ipiniko dira leku guztietan.

Norantza bi daukaz kanpaina barriak. Kanpotik barrurako, Udalak eskaintzen dauen zerbitzua euskalduna dala erakutsi gura dabe, euskaldunek euskeraz berba egiten animau daitezkan, eta erdaldunek euskerearekiko jarrera ona euki daien. Beste alde batetik, barrutik kanporako bidea be erabiliko dabe, *Lehenengo berbea euskeraz* lelopean, Astiuneko beharginei zuzenduta: «Eurek herritarrentzat eredua dirala erakusteko, eta, beraz, euskerea erabili behar dabela gogoratu arazoteko».

Motibazino kanpaina amaitu ostean emaitzak aztertuko dira, euskerearen aldeko ekimen gehiago martxan ipinteko.

GORLIZ. Mankomunidadeko Droga-menpekotasunen Zerbitzuak eratu dau

Gurasoen Eskola martxan dago, seme-alabakaz sortutako arazoei urtenbidea topetako

V. M. |

Gurasoen Eskola, gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazinoa eta hartu-emonak hobetzeko asmoz sortutako egitasmoa martxan ipini dau Uribe Kostako Mankomunidadeak, zortzigarren urtez, Droga-menpekotasunen Prebentzinarako Zerbitzuaren bidez.

Gorlizko Kultur Etxean zortzi

saio egingo dira, apirilaren 25era arte, 10:30etik 11:45era. Horrezaz ganera, Sopelako DBHko Institutuan be informazino saioak izango dira gai horren ganean, baina oraingoan arrastian, 17:30etik 19:00etara, eta apirilaren 24ra bitartean.

Urteak joan ahala, gurasoek seme-alabakaz daukiezan arazoak ezbardinak dira. Gaur egun, behin baino gehiagotan

arazoak teknologia barrien eraginez sortzen dira, besteak beste umeei eta nerabeek denpora gehiegi dabilzalako bideoagaz, ordenadoreagaz olgetan...

Gai horren inguruan eztabaizatzeko saioak izango dira Plentzia, Berango eta Urdulizko kultur etxeetan. Plentziako saioa apirilaren 16rako eratu dabe; Berangon maiatzaren 14rako, eta Urdulizen maiatzaren 28rako, danak arrastian.

Uribe Kostako herritar guztiek hartu leikie parte Gurasoen Eskolan. Argibide guztiak mankomunidadeko kultur etxeetan lortu leitekez.

LAGUARREAN

GETXO

Aholkularitza zerbitzua eskainiko dabe enpresaren bat sortu barri daben getxoztarrentzat

Enpresa sortu barrietarako aholkularitza zerbitzua eskainiko dabe laster, Udalak enplegurako planaren barruan martxan ipini dauen programa baten bidez. Esperientzia barria da; enpresearen ikerketea egin ostean, zenbait estrategia erakutsiko deuse enpresetako arduradunei, jarduerak arrakasta euki daian eta proiektua aurrera atera daien. 887.000 euroko aurrekontua onartu da helburu horregaz. Aurkeztutako proiektuen bideragarritasuna eta proiektuok finantzatzeko bideak be aztertuko dabez. Informazino gehiago, Algortako Behargintzan.

GETXO

Agintzarik koordinauko dau borondateko beharra

Agintzari alkarteak Boluntarioen Batzordea ipiniko dau martxan, eta Getxoko Boluntarioen IX. Topaketak antolatuko dauz. Helburu horregaz, Getxoko Gobernu Batzordeak 7.300 euroko aurrekontua onartu dau. Agintzari boluntarioen alkarteek egiten daben jarduerak koordinetako beharra egingo dau, azkenengo urte biotan egin dauen moduan. Horrezaz ganera, Boluntarioen Topaketetan parte hartuko daben boluntarioak, sari banaketea eta topaketarako egunak be zahaztu beharko dauz.

BAKIO

Lanpostuen eskaintza publikoak

Bakioko Udalak 3 hondartzain eta 5 udaltzain behar dauz, eta behargin horreek kontratatuko lehiaketa publikoa egingo dau laster. Lehiaketa horretan parte hartzeko oinarriak herritarren esku dagoz udaletxean bertan. Martiaren 11n amaituko da izena emoteko epea. Horrezaz ganera, *Herrri Barriak* Udalaren aldizkarian behar egiteko pertsona baten bila dabilz egunokaz. Gura dauenak martiaren 14ra arte eukiko dau aldizkaria egiteko proposamenak aurkezteko epea, Bakioko udaletxean bertan.

BAKIO

Edurrera joateko bidaia antolatu dau Bakioko Surf Taldeak, martirako

Bakioko Surf Taldeak edurrera joateko bidaia antolatu dau Turismo Bulegoagaz batera. Bidaia Cauteret eski estazinora izango da, martiaren 8tik 10era bitartean, eta prezioa 81 eurokoa da. Prezio horren barruan sartzen dira bidaia autobusez, eskiatzeko txartela bi egunetarako eta egonaldia apartahotel baten. Asegurua aparte doa, eta 7 euro balio dau. Horrezaz ganera, eskiatzeko tresna guztiak alokatzeko eta ikastaro baten parte hartzeko aukerea be eukiko dau gura dauenak. Izena emoteko azkenengo eguna datorren astelehenean, martiaren 4an izango da. Informazino gehiago, Bakioko Turismo Bulegoan: 94 619 57 02.

AGENDEA

GETXO

Erakusketea: Algortako Kultur Etxeko erakusketa geleak Mugarik Bako Medikuek Gobernu Kanpoko Erakundearen (GKE) argazki erakusketea hartuko dau, gaur hasi eta martiaren 9ra bitartean. GKEko jarduerak eta boluntarioen beharra ezagutu arazoteko zabaltzeko erakusketa hori, eta astegunero bisitatu ahal izango da, 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 21:30era, eta zapatueta, goizean bakarrik.

Begirale euskaldunak: Bizarra Lepoan Euskera Alkarteak begirale euskaldunak behar dauz aisialdiaren munduan jarduerak antolatzeko. Izena emoteko eta informazino gehiagorako gura dauenak alkarteko egoitzara jo leike, Itxas-Gane

kultur gunera, Algortako Karidade kaleko 1ean. Telefonoa hau da: 94 491 43 57. Eta posta elektronikoa: bizarralepoan@euskalnet.net.

BERANGO

Erakusketea: Elena Lopez artista getxoztarren akuarelak, Kultur Etxeko erakusketa gelan, martiaren 3a arte.

LEIOA

Bideo Foruma: *La novena puerta*, 20:00etan Sabino Arana kultur guneko areto nagusian. Sarrerea doan izango da.

BAKIO

Erakusketea: Mahaste Aldek alkarteko logotipo barria aukeratzeko lehiaketan aurkeztutako 31 beharrak erakusten dauz egunokaz Kultur Etxeko erakusketa gelan. Eguena arte bisitatu ahal izango da.